

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Maiatzak 11, 63. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

SABIN MARTIARTU:
Deba Garaiko
Lanbide Heziketa
antolatuz

ARRASATE PRESS
7.000
ale!



ELBARRITUAK PLAZARA



INTERSPORT

Murgildu Udaldian!



LORAMENDI KIROLAK

Camping-gaiak
Kirol jantziak
Zapatilak
Bainujantziak

Adi ATBren ikusle!

22.

k a n a l e r a
j o a n g a r a

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau.

23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari.

23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



ARRASATE TELEBISTA

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karme
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Eukeni
Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,
Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalatakoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.500 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzen erantzunkizunik.



Sarrailgintzako museoa Arrasaten

Edozein herritako industri motak bertako bizilagunen izakera markatzen du. Hori horrela izan da mendetan zehar eta aurrerantzean ere —berbera gertatuko ote den asmatzea zaila den arren— printzipio berdinek indarrean jarraituko dutela uste dut. Industri motak izakera ez ezik, azala ere lantzen duela esan genezake eta gure herrian bertan horren lekuko dugun “cerrajeros” deitura azpimarra liteke.

Arrasateko burdinoletan oinarriturik, mondrautarren industriako historian sarrailgintza aurkitzen dugu. Noiztik? Auskalo!... galdera hori, sektore horren inguruan prestatu beharreko ikerketan argituta geratu ahal izango litzatekeelarik. Eta, dirudenez, ba omen dabilta alde horretatik zerbait prestatzen. Non? Lehen albisteak, bederen, Udaletxetik iritsi zaizkigu...

Arrasateko herriak museoren bat eratzekotan, sarrailgintzari legokiokeena prestatu beharko luke; arlo egokia, dudarik gabe, gure herriaren nolakotasunetan ongi erroturiko aktibitatea baita eta Euskadik bere ondareari eutsiko badio, lehen be-launaldiko metalurgintza horren antolamendu didaktikoaz ardurtzen hasi beharko da. Non egokiago hemen baino, sarrail-estiloa aurkeztea?

Udaletxean ba omen dihardute —ez dakit zernolako ganoraz— proiektuari lehen harria ipintzeko asmoz. Aurrera egin baino lehen, noraino ailegatu nahi duten hausnar dezatela eskatuko nieke, horien gisako kasu askotan bezala gerta ez dakien: ilusio haundiz hasi... berehalaxe bertan behera uzteko. Azkeneko hogeitau urteotan, museoak kontsumo gizarteak garaturiko objektu erakargarri bilakatu dira. Era guztietakoak sortu dira, han hemenka, batzuetan ondorio politiko, soziologiko eta ekonomikoak ongi aztertu gabe. Kasu horietan emaitza txarra izan da eta museoa ireki bezain laster itxi behar izan dute, tamalez. Horixe da, hain zuzen ere, edozein proiektuk jasan dezakeen jipoirik lotsagarriena.

Sarrailgintzako museoa eraiki behar dela? Ederki! Ekin diezaiogun, lehendabizi, barme-erreflexioari. Badira Arrasaten proiektu horretan interesatuta egon daitezkeen erakunde eta pertsonak. Bapateko euforia ez da aholkulari egoki izaten, eta helburu guztiek babes proposagoa lortzen dute elkarlanean, nor bere aldetik baino. Museologia, aspaldiko zientzia dugu.

Josemari Velez de Mendizabal



enpresa
bazkariak
eta famili bilerak



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

*Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atek*

Legarreko pabiloi industriala
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Alfonso X. Jakintsua 5,
Tfnoa: 79 70 36
ARRASATE

Arrasateko institutuak herriari

Honako eskutitz honekin institutuaren berri eman nahi genizueke bertako egoera eta datorren kurtsorako (90-91) ditugun asmoekin.

Datorren maiatzaren 15etik aurrera aurreinskripzio epea zabalitzen dela eta, informazioa bidaltzen dizuegu, zuek aldizkariaren bidez zabalduko duzuelakoan.

Dakizuenez inguru honetan institutua da batxillergoa eta UBI ematen duen ikastetxe bakarra eta ikaslegoa gurea etortzen animatu nahi genuke.

Institutuan gaur egun D eredu (dena euskeraz) finkaturik dago eta datorren ikasturtean iritsiko dira lehen ikasleak UBIra (COUra). Irakaslegoaren aldetik, esan, gehiengo euskalduna dela (%80), beraz guztiak euskeraz eman eta jaso daitezkeela.

90-91 ikasturterako, orain arte, 8.mailan bai ikastola bai eskola publikoetan B eta D ereduatan aritu diren ikasleek, institutuan euskeraz ikas dezaten nahi genuke.

Orain arteko esperientziak adierazten digu, 8. maila arte euskeraz aritutako zenbait ikaslek, batxilergoa gatzelaniaz jarraitu izan duela, hau da, A ereduan, eta ez genuke inola ere hori berriro gertatzerik nahi.

8. maila arte euskeraz aritu direnei batxilergoa ere euskeraz egiteko aukera eman nahi die institutuak.

Gutun honen bidez ikasle eta gurasoak animatu nahi ditugu, D eredu matrikula daitezen institutuan.

Besterik gabe eta aurretik eskerak emanez, agurtzen zaituztegu:

Arrasateko Institutuko Klaustroa

Bilbotik agurra

Zuzendaria agurgarria:

Aste honetan astekaria ezagutu dut eta asko gustatu zait. Nire Euskaltegiko irakaslea arrasatearra da eta handik ale batzu ekarri dizkigu. Irakurri eta gero idaztea harpidetza bat eskatzeko erabaki dut.

Ez dakit bidali ahal izango didazu ala ez Bilbon bizi naizelako, eta bakarrik Arrasaten zehar banatzen dutela esan didate. Niri euskara praktikatzeko metodo ona iruditzen zitzaidan eta horregatik bidali dizut eskutitz hau. Espero dut ez dela arazorik egongo eta laster esku artean aldizkaria eduki ahal izango dudala.

Zure erantzuna espero dut. Eskerrik asko denagatik.

Irakurlegai eta harpidedungai bat.

Mikel Ortiz de Pinedo

Euskal egunkariaren inguruan

Euskaldunok ere bagara, gero, izatekoak!

Halako batean pentsatzen hasi, eta euskara hutsean egindako egunkariak gosaldurik behar genuela erabaki. Ados. Baina konturatu orduko, dagoeneko bi bandotan banatuak gaude.


Badagoela esaera bat, batasunak indarra ematen duela; baina antza denez, horrek ez du guretzat balio.

Kapazak gara proiektu eder hori hiru, lau, edo mila bandotan zatitzeko. Eta horrenbestez, urte piloan emango dugu erdera hutsean idatzitako informazioaz esnatzen.

Eldartuko ote gara noizbait, bateratuta lan egiteko gai garela erakutsiz?

Hala bedi!

Bixente Arriolabengoa



HIESak jotako umeeek, beste haurrekin batera joan behar dute eskolara?



Maite
(langilea)

Niez naiz erabaki hori hartu beharrean aurkitu eta baietz uste dut. Dena dela, parean tokatuz gero, ez dakit zer esango nukeen.



Miguel Angel Torres
(tabernaria)

Kutsatze arriskurik ez dagoela esaten dutenez, baietz uste dut. Ziurtasun handia izan beharko genuke, bestela arriskutsua litzateke.



Jose Ramon San Miguel
(jubilatua)

Batzuk kutsatze arriskurik ez dagoela esaten dutenez, normala da joatea. Gurasoak aldiz, beldur dira. Informazio gehiago izan beharko genuke.




Imaculada
(langilea)

Egia esan, ez dakit. Nik seme-alaba ditut eta erantzun egokia emateko informazio gehiago beharko genukeela uste dut. Zentru berezi bat ez litzateke egokiago? Ez dakit.

LENIZ

AUTO ESKOLA



BADAUKAGU AUTOBUSA!!!

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22

URRIN

Urbarri Etorbidea 22, Tfnoa: 79 95 24

**KAZOLATAN
ESPEZIALISTAK**



ARANBURU COTEMAR

Garraio agentzia



Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE




BELUN taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEA

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
--	----------

11 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Haz lo que debes". 7 eta 10etan.
- Novedades: "Pesadilla en Elm Sreet". 10.30etan.
- Antzerkia: "English Teaching Theatre" ikusteko aukera. Ingeles ikasleei zuzendua. Bergarako Compañia de Mariako areto nagusian, gaueko 9etan. eta Arrasateko AHIZKEN, arratsaldeko 5.30etan.
- Musakolako jaiak:
 - Haur jolasak, 10,15etan.
 - Jubilatuentzako mus eta briska txapelketaren finala, 4etan.
 - Bolo txapelketaren finala, 4.30etan.
 - Jubilatuen omenaldia eta afaria. Ki-roi degian, 7.30etan.
 - Dantzaldia. Mixxoriak taldeak alaituta. Gaueko 10.30etan.
 - Sokamuturra. Goizaldeko 1ean.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina

12 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Valmont". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "Pesadilla en Elm Sreet". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Umeentzako emanaldia: Gorakada Txontxongilo taldeak, "Gorakada Zirkoa" eskainiko du. Amaia atzokian, arratsaldeko 6etan.
- Musakolako jaiak:
 - Erraldoi, buruhandi eta dultzainerruak. Goizeko 10etan.
 - Haurrentzako jolasak 11etan.
 - Herri bazkaria. Kiroldegian, 2.30etan.
 - Sokatira lehiaketa. 5.30etan.
 - San Isidro V. Bolo Lehiaketa. Gaueko 10.30etan.
 - Dantzaldia: Berakatz Band taldeak alaituta. Gaueko 10.30etan.
 - Sokamuturra. Goizaldeko 1ean.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

13 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Valmont". 5, 7.30 eta 10.30etan.

Novedades: "Orquidea Salvage". 5, 7.30 eta 10.15etan.

- Antzerkia: Trapu Zaharra antzerki taldeak "Vengador enmascarado" antzeziana eskainiko du. Eskoriatzako plazan, arratsaldeko zazpietan.
- Musakolako jaiak:
 - Mountain-bike ibilaldia. Goizeko 9etan.
 - Herri kirolak: Herri jasotzaileak, aizkolariak, aharri probak eta haur jolasak. Arratsaldeko 5etan.
 - Rock jaialdia. DDDP, Malaña, Sakarrak eta SS-77. Arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Morales. San Andres.

14 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Valmont". 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "Orquidea Salvage". 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

15 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Valmont". 7.30 eta 10.30etan.
- Hitzaldia: "Osasuna, kontsumo gizartea eta aisia" gaiaren inguruan Eukeri Olabarrieta sendagileak eskainia. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan, arratsaldeko 4.30etan.
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

16 ASTEAZKENA

- Antzerkia: Peter Roberts Amaia antzokian, eguadiako 12.30etan.
- Zinea: Alai: Ez dago emandirik
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

17 OSTEGUNA

- Antzerkia: Peter Roberts Amaia antzokian, eguadiako 12.30etan.
- Zinea: "Paseando a Miss Daisy". 7 eta 9.30etan.
- Hitzaldia: "Hitz iraganen eszenarioak. Oroimen eta literatura" aAndu Lertxundiren eskutik. Monterronen 7etan.
- Zineklub: "Los crímenes de Rosario". Amaia antzokian, arratsaldeko 8.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

ERAKUSKETAK

- **Komiki erakusketa.** Kultur Bideetan programaren barruan, maiatzaren 15era arte, Monterron Kultur Etxean.
- **Imanol Morenoren, grabatu eta pintura erakusketa.** Etxe Aundin, hilabete honetan zehar

IRTEERAK

- **Herri Urratsera** joateko autobusak igandea hilaren 13an. AED elkarteak antolatuta. Izen emateak Hire, Iturriotz eta AEDn bertan.

*Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa,
ez begiak itxi.*

*Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi.*

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Faxa: 791489 ARRASATE



Zabalik gaude!!! Erakusketa berria Santamainan

ARRASATEKO UDALA

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udalak euskara ikasten ari diren arrasatearrentzat bekak ematen ditu. Argibide gehiagorako, dei 79 09 00 telefonora edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

Arrasaten, 1990eko maiatzaren 9an.

“ Joxerra Gartzia ez zen ezkondu, baina Amaia-
rekin bizi da, semea ez dute bataiatu, komunio txiki-
rik ez du egingo. Koherentzia pertsonal bat mantenen
du ateismoaren aldetik, baina giro bat sortzea da
zailena berarentzat. “Lagun bat hiltzen denean eliza-
ra hoa edo bestela ez duk ezer egiten. Ni erritozalea
nauk. Zergatik ez dugu pauso hori ematen, zergatik
ez antolatu ohitura sorta bat, baina gure ikuspegitik,
elizaren erreferentziarik gabe. Hori ez diagu egin.
Beti ezezkoan bizi izan gaituk, baina ez diagu ezer
eraiki. Bizitzako pausoak sakralizatu egin behar dira.
Ez diagu elizatik egin nahi, baina ez diagu horren
ordezkorik eraiki”.

*(Pako Aristik Joxerra Gartzinari eginiko
elkarrizketa, DVko Zabalik-en)*

“ Julian Retegi eta Josean Tolosa, pelotaren za-
hartzaroaren lekuko adierazgarriak, 35 urte lehenak
eta 34 amezketarrak. Ez dira ordea goi mailan dihar-
duten zaharrenak, are eta zaharragoak bait dira
Maiz, Bergara, Bengoetxea, Beristain eta abarrak.

Askoren eritziz, 30 urtekoa da pelotan aritzeko
sasoirik bikainena, ez dugu guk hori ezeztatuko, bai-
na noiz hasi zen Retegi txapelak irabazten? Hogeita-
lau urtekin. Egun, Unanue eta Salaberria baino ez
dira Retegi II.ak txapela lehen aldiz jantzi zueneko
bezain gazteak, 22 eta 23 urte alegia.

(...) Non daude beraz gaztetan jokatzen hasten
diren pelotari apurrak?

(...) Aurrera begira, irtenbideak aurkitu beharko
dituzte kirol honen zuzendariak, ez bait dugu uste 40
urtekoa denik pelotan aritzeko sasoirik onena”.

(Andres Gostin eta M. Arrietak Argian)

**Zeintzuk dira Euskal Espor-
tazioak dituen arazo nagusiak?**

Enpresarien mentalitatea da enpresarien arazo nagusia. Euskal enpresariak kanpoko merkatuak soberakina saltzeko erabili izan ditu. Ondorioz, lehiatzeko egoera txarrean dago, bere lehiakideek merkatu bakoitzaren beharren arabera produktu bereziak eskaintzen dituztelako. Euskal enpresariak kanpoko merkatuei eraginkortasunez aurre egin nahi badie Europan saltzea, barne merkatuan saltzea dela pentsatu beharko du.

Euskal enpresa, bestalde, enpresa txikia da. Enpresa txikiarentzat, aipatu ditudan erizpideekin, kanpoko merkatuetan saltzea oso zaila da. Konponbidea elkartzea izan daiteke, baina euskal enpresariak ez du beste batzuekin bildu nahi izaten. Euskal enpresak dituen muga teknologikoak ere ezingo ditugu ahaztu. Kanpoko lizentziekin lan egin ohi du, honek merkatuen mugaketa eta beste batzuen atzetik joan behar izatea dakar. Bere barne-antolaketaren garapen teknologikoak bestalde, Europako industriak duen maila ez du.

Ingurunearen arazoez hitz egitean, lehenik eta behin, euskal industria, etengabe lehiakidetasuna galtzen ari dela aipatu behar. Bi arrazoi nagusiren ondorioz, sortarazten ditugu hemen, kanpoko txanponekin alderatuz pezetaren parekotasunaren gorabeherengatik eta herrialde industrializatu nagusienekin alderatuz dagoen inflazio-diferentzialengatik. Lehiakideak hobeto preparatuta daude. Azkenik, finantz arazoekin egingo dugu topo.

*Jose Ignacio Garate
Lankide Esport-eko zuzendaria*



BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

VICTOR RUIZ MELGAR

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)
ARRASATE

MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50


Deba Garaiko II. Txiste Txapelketa

Aurten ere, Asier Agirrebeña irabazle

Jende ugari hurbildu zen Bergarako Mariaren Lagundia ikastolako areto nagusira, aurtengo Deba Bailarako txiste kontalaririk onena erabakiko zuen Txapelketa ikustera.

Zazpi lehiakide aurkeztu ziren: lau Bergarakoak: Maite Aristegi, Jabier Garitano, Asier Agirrebeña eta Pedro Iturrino, S. Juan auzoko jubilatua. Aretxabaletako bat, Paulo Otxoa. Antzuolako beste bat, Jose Ramon Peña. Eta Arrasateko bakarra Jon Iñaki Isarzelaia izan genuen.

Epaimahaian Juan Martin Elexpuru, Bernardo Kortabarria, Estepan



Plazaola eta Juan Luis Arejolaleibak osatu zuten.

Gogoz hasi ziren txiste kontalariak, maila polita erakutsiz. Askoren ustez, bat nabarmendu zen besteengandik: Asier Agirrebeña, iazko txapelduna, hain zuzen ere. Epaimahaikoek ere horrela pentsatu zuten eta aurtengo txapeldun izendatu zuten. Bigarren Jon Iñaki Isarzelaia eta hirugarrena Jose Ramon Peña, antzuolarra.

Saioak bi ordu iraun zuen eta jendea gustora irten zen. Badirudi iaz hasi zen Txiste Txapelketa hau sendotuz doala. Ea noiz tokatzen zaizkion Arrasateri antolatze lanak.



Aste gastronomikoa Batzokian

Arrasateko Batzokian Aste Gastronomikoa izan da. Inguruetako jatetxe ezagunen esku egon da ikastaroa. Astelehenean, Eibarko Artola jatetxeko Juan Manuel Artola; asteartean, Zelaizabalko Alberto Elortza; asteazkenean, Etxe Aundiko Emilio Palma; ostegunean, Lasako Koldo Lasa eta ostiralean Bakotzokiko Mariasun Zarraok izan genituen.

Sukaldari bakoitzak hiru plater prestatu ditu eta amaitu ondoren hurbildu direnen artean zozketatu.


FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOBBA
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
79 14 01

ARRASATE

ORTZI erretegia

Angiozar auzoa
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA



Honako hau da hautsa botatzen duen tximinia

Auzokideak haserre *Gelmarekin*

Enpresak kaleratzen duen hautsa ezin jasan

Nafarroa etorbideko biztanleek, Gelmak isurtzen duen zikinkeria dela eta, salaketa aurkeztu dute epaitegian. Honez gain, alkatearekin ere, bilerak izan dituzte eta zenbait protesta ekintza burutu.

Irailetik aurrera, Gelma parean bizi diren bizilagunak, etxeak erabat itxita bizitzera behartuta daude, hauts beltz batek beren etxeetako zoko eta bazter guztiak betetzen bait ditu. Biztanleek aditzera eman dutenez, egoera horretan ezin bizi daiteke eta Gelmari hauts hori botatzeari utz diezaiola eskatu diote. Leihoak asteburuetan baino ez dituzte irekitzen eta arroparik ezin dute garbitu eskegi orduko beltz geratzen bait da. Hautsa teiltuan pilatu eta euriarekin nahastean ur-hodiak itxi egin ditu, ondorioz, ura etxeetara sartuz.

Guk geuk ikusi ahal izan dugu

etxeetan hautsak egin dituenak. Gelma parean dagoen etxeke hirugarren solairuko bizilagunek, sabaia hezetasunez beteta dute eta zenbait leiho hondatuta. Eskailera eta duela bi urte margotutako fatxada ia beltzak agertzen dira eta etxe barruan hautsa nagusi.

Bizilagunek, horrela ezin segi dezaketela eta, zaborrak Gelmara botatzen aritu dira hilabetez.

Eguzki talde ekologistak, biztanle hauek bizi duten egoera salatu eta beraiekin bat egin du.

Udalak, bere aldetik, Gelmari hiru hilabeteko epea eman zion, botatzen dituzten hondakinez txostena aurkez zezan, baina Gelmak ez zuen aurkeztu. Nafarroa Etorbideko bizilagunen kezak kontutan hartuz, berriro ere informea eskatu zion, oraingoan hilabeteko epea emanez.

■ **Arte Hamabostaldiko bilerak**
1990. urteko Arte Hamabostaldia antolatzeko bilerak hasi dira jadanik. Hamabostaldiaren antolaketa parte hartu nahi duten arrasatearrak gonbidatuta daude, ostiraletan arrasaldeko zortzietan Ospitale Zaharrean burutzen diren bileretan parte hartuz. Interesatuena ideia eta eritziak oso eskertuko dira.

■ **Bekak euskara ikasleentzat**
Arrasateko Udalak, euskara ikasleentzat beka sistema berria onartu du. Beka, Arrasaten zein beste edozein herritan eta Udal Euskaltegi, libre zein homologatueta euskara ikasten duen edozein arrasatearrek eskuratu ahal izango du. Informazioa eta eskaerak Arrasateko Euskara Zerbitzuan.

■ **Errenta aitopenak Arrasaten**
Gipuzkoako Foru Aldundiak, errenta aitopenak jasotzeko bulegoa jarri du Arrasaten, Lan Kide Aurrezkiak Iturriotz kalean duen bulegoetan. Zerbitzua astelehenetik larunbatera, zortzi terdietatik ordubatera eskaintzen da. Uztailaren 25era arte izango da Arrasaten. Arrasatearrok beraz, ez dugu Bergarara joan beharrik errenta aitopenak eramatera.

■ **Ekomovil programa**
Cadem-ek kaleratu berri du, aurtengo Ekomovil programaren balantzea. Aurten, errebisioa 393 autok egin dute eta hauetatik 370ek akatsen bat zuen. Iaz 268 autok egin zuen errebisioa. Edozein modutan, Cadem-ek errebisio gehiago egitea espero zuen. Jende ugari errebisioa egiteko txartela hartu zuen, baina txanda heldzean ez zen agertu.



**Arrasateko
jatetxea**

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53

**KIROLDEGI
JATETXEA**

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Musakola Auzoa. 79 82 31

Komiki Erakusketa Monterronen

Euskal Herriko 40 komikilariren lanak ikusgai


Monterron kultur etxean, egun hauetan zehar *Komikiaren Panorama Euskadin* erakusketa ikusteko aukera dugu.

Komiki erakusketa hau, Kultur Bideetan programak antolatuta etorri da Arrasatera. Kultur Bideetan saioak kulturaren mezua eraman nahi du gizarte-sektore guztietara. Hori dela eta, komunikazio eskarria osatu nahi izan du, sortzaileak publikoarengantzeko eta publikoak artistegantzeko aukera izan dadin. Erakusketa maiatzaren 15era arte ikusteko aukera izango dugu.



Jazten bigarren alea kalean

Dagoeneko kalean da *Jazten* soziolinguistika aldizkariaren



bigarren alea. Ale honetan, Irakaskuntza, Hizkuntza eta Gizartea gaien inguruko zenbait erreflexio aurkituko dugu.

Aldizkarian lau artikulua aurkituko ditugu; Edorta Agirrek itzultitako "Irakaskuntza, hizkuntza eta gizartea" -Valentziako egoerari eskainitakoa-; Karmelo Basaredoren "Irakasle izatea irakasmilla ertainetan"; Irakasle Elkartearen "Irakaskuntza euskaraz, bai" eta Txepetxeren "Euskara eta irakaskuntza".

Aldizkaria AED elkarteak argitaratu du eta 300 pta.tan eskuratu ahal izango duzue. Julen Arejolaleiba da *Jazten* aldizkariaren zuzendaria.

Usteak uste...

Dexente aldatu dira gauzak Musakolan gure txikitako garaie-tatik. Musakolatik kalera joatea ondo pentsatu beharrekoa zen. Hasierako Cerrajera eta S. Lorentzo etxeetakook bakarrik ospatzen genituen San Isidroak.

Geroago, hirurogeigarren hamarkadan, etorkinen uholdeare-kin batera, etxe multzo berriak eraiki ziren: S.Antolin, Roneoko etxeak, Santa Teresakoak, kirol-degi ondokoak...Erroz aldatu zen Musakolako fisonomia eta hizkuntza, nolabait esatearren, Cerrajerako langile asko eta asko euskaldunak baziren ere, etorki-nek ez bait zekiten aldean zekar-ten hizkuntza baino.

Aldi luzetxo batean, auzune bakoitzak bere jaiak ospatzen zituen, betikoek San Isidroak; etorri berriek S.Antolinak edo bestelakoak. S.Isidro elizari ere nolabaiteko konpetentzia sortu zitzaion Santa Teresakoarekin. Sasoi hartan lehiaren ikuspegitik ikusten ziren gauzak.

Zorionez, badirudi urek beren onera egin dutela apurka-apurka eta krisialdiaren ostean baretasu-na etorri dela. Direla urte batzuk S.Isidroak auzoko jai bakartzat hartzea erabaki zuten eta, oraindik ibiltzeko bide luzea gelditzen den arren, Musakolak beste nortasun batuagoa erakusten duela iruditzen zait.

Ondo pasau eta segi aurrera.

Joxe Aranzabal

M. Angeles Garbala eta Jose Alberdi doktoarek

KONTSULTA OFTALMOLOGIKOA

Ordua aldez aurretik eskatu, astelehenetik ostiralera, arratsaldez.

Partikularrak eta Lagun Aro.

J.C. Guerra kalea 1, 3. eskuina. Tfnoa: 77 08 96

ARRASATE

**URREZKO BITXIAK
ERLOJUAK**

Erdiko Kale 23. Tfnoa: 79 20 47
ARRASATE

NAROKI



Iaz Udalak aurren baino 20 lanpostu gehiago eskatu zituen

Enplegua sustatzeko programa

Udalak, 30 lanpostu eskatu Foru Aldundiari

Arrasateko Udalak aste honetan, enplegua sustatzeko programaren barruan sortuko dituen lanpostuak zehaztu ditu. Foru Aldundiak 59 lanpostu eskaini zizkion eta Udalak 30 eskatu ditu.

Enplegua sustatzeko programa, Foru Aldundiak eta INEMek, Udalekin elkarlanean, bultzatutako programa da. Udalak aurren, Egun osoko kontratuaz lan egiteko, 4 heziketa fisiko monitore, 2 liburu zain, 4 ikus-entzun teknikari, 2 kazetari diplomatu, maketaria, administraria,

iturgina, obra-ikuskaria, 2 peoi, injeneru tek. agronomoa beharko ditu.

Izaera osagarritz, inkestatzailea, arkitektu teknikoa eta 4 monitore informatiko eskatu ditu Udalak.

Egun erdiko kontratuaz lan egiteko, liburuzaina, 2 ludotekazain, haur-liburuzaina, gizarte-laguntzailer eta diseinu teknikaria beharko ditu. Prestakuntza kontratuaz, azkenik, 3 altzari konpontzaile beharko ditu Udalak.

Lanpostuek sei hilabetetako iraupena izango dute.

Bi arrasatear epaituta

Asteartean, Madrilgo Entzutegi Nazionalean, Jose Ignacio Gaztañaga eta Luis Mari Azkargorta arrasatearrak epaitu zituzten. Fiskalak, 120 urteko kartzela zigorra eskatzen zuen bientzat. Gestorak astean zehar zenbait ekintza egin ditu, epaiketa hauek salatzeke.

Haizke- Cim-eko beka

Haizke-Cim-ek hiru beka eman goko ditu, 10-13 urte bitarteko ikasleek udalekuetara joateko. Ikasleen baldintza ekonomiko eta urtean zehar izan dituzten emaitza akademikoak izango dirakontuan.

JAIOTZAK

Arejita Corcuera, *Unai*. Apirilaren 26an
Deresa Carrillo, *Jessica*. 27an.
Garai Murua, *Aritz*. 28an.
Osa Anduaga, *Ibai*. Maiatzaren 1ean.
Etxebarria Gaztañaga, *Xabier*. 2an.
Martins Martinho, *Marcel*. 3an.
Sanchez Ortiz, *Jerah*. 3an.
Mendikute Otxoa, *Unai*. 5ean.
Sanchez, Romero, *Maidier*. 7an.

EZKONTZAK

Pedro Diaz de Cerio Gorostiaga & M. Aranzazu Nuñez Larzanguren. Apirilaren 21ean. Zibilez.
Santiago Gonzalez Peraita & Miren Alasne Ortiz Korta. Apirilaren 28an. Zibilez.
Jose Ramon Zubizarreta Arruabarrena & M. Pilar Bolinaga Idarraga. Maiatzaren 5ean. Eleiaz.
Felipe Bollon Jimenez & Jaione Arruabarrena Lazkano. Maiatzaren 5ean. Eleiaz.
Jose Arrotxa Gil & M. Pilar Herrero Dieguez. Maiatzaren 5ean. Eleiaz.



NUTRISAN

NUTRIZIO, OSASUN ETA KIROL MENDIKUNTZAKO ZENTRU MEDIKOA.


Zatoz gugana, amesten duzun gorpuzkera berreskuratu eta behin betirako mantentzeko.

- Dieta personalizatuak eta azterketa metabolikoak
- Zelulitiaren tratamendu medikua.
- "Kirol-gimnasiako" mahaia.
- Elektroeskultura.

Arduradunak:

Telleria Dka., Serrano Dka. eta El Busto Dka.
(Dietetika eta Nutrizioa Bordeleko Unibertsitatea)

Kale Aldea 11, etxabea, Arrasate Tfnoa: 79 65 78



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialea
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak



KOLTA

Aranzabal Akobe
elektrogailuak

ROWENTA
ESKU-ASPIRAGAILUA



MELIA BIDAIK

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT



**OKIENDO
KIROLAK**

ZAPATILAK



Ikatz
argazki etxea



ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA

Hileko sari handia



Ikatz
argazki etxea

80.000 pta.ko
reflex argazki
makina

ASTE HONETAKO
SARITUAK

ENEKO AUZMENDI
Esku-aspiragailua

IRAIA SOLA ARREGI
Bi lagunentzako afaria

JONE MONTERO
Kirol zapatilak

EUKENE MONDRAGON
Argazki makina


Galdera:

Zer izen du AEDren soziolinguistika aldizkariak?

Erantzuna:

Izen-deiturak:

Helbidea: Adina: Tlfnoa:



Gasaren instalazioaz salaketak

OMIC-KIUBek zenbait erreklamazio jaso

Azken aldian, Arrasateko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak makinatxo bat erreklamazio jaso ditu gasaren instalazioa dela eta. Arrasatear gehienek, instalazioaren planoak ikusi gabe firmatu dute gasaren instalazioaren kontratua. Ondorioz, instalatzaileak, nahi duen lekutik egiten ditu lanak, batzuetan beste erarik ez dagoelako, baina beste askotan instalatzaileari komeni zaiolako.

Bestalde, instalazioaren baimena Udaletxean instalatzaileak berak eskatzen duenez, kontsumitzailea

lan horiek aldatzeko biderik gabe geratzen da.

Antton Fernandezek adierazi digunez, gasa instalatzea erabakitzean, lanak nondik nora joango diren zehaztea eskatzeko gomendatzen dio jendeari ondoren ezusterik gerta ez dadin.

Gasaren instalazioa Natur Gasekin kontratatzen dute arrasatearrek, baina Natur Gas bitartekaria baino ez da. Beraz, kontratua sinatzean, Natur Gas eta instalatzailea, biak egotea eskatzea aholkatzen die Antton Fernandezek arrasatearrei.

■ Katekista ikastaroa

Hilabete honetan bukatuko dute Txindoki dorrean urritik aurrera as-teartero izan den katekista ikastaroa. Ikastaroa Deba Garaiko Artzapez-barrotiak antolatu du eta Eskoriatza, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Arrasateko 40 katekistak hartu du parte.

■ Aurrematrikulaldia irakaskuntza ertainetan

Irakaskuntza ertainetako zentru guztiek aurrematrikulaldia irekita izango dute hilaren 15etik 30era bitartean.

■ Bergara insumisoaz

Begarako Udalak, aste honetan burutu zuen osoko bilkuran, Markos Perez, atxilotuta dagoen bergarar insumisoarekin bat egitea erabaki zuen. Begarako Udalak ia aho batez onartu zuen insumiso gaztearen atxiloteta salatzen zuen mozioa. Bergarako Udala, Markosen askatasuna lortzeko giza zein ekonomi baliabide guztiak jartzera konprometitu zen. Insumisoa gaur egun, Madrilen dago baina gutxi barru A Coruñaara eramango dutelakoan daude.

■ Irakasle Eskolakoak huelgan

Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasleek huelga egin dute aste honetan LOSE legea salatzeke. Protesta ekintza ugari egin dituzte. Astearte eta asteazkenean entzerrona egin zuten Irakasle eskolan bertan.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak


ARETXABAleta

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE




Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

L ARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



ASA Argazki Taldea sortu berri

20 arrasatearrek bultzatutako ideia

Gaur arratsaldeko 7etan Monterron Kultur Etxean Asa taldearen aurkezpen ofiziala egin da. Asa taldea, Arrasateko hainbat argazkizalek, hain zuzen ere 20 lagunek eratu dute.

Asa taldea azken lau hilabeteotan egin dituzten bileren ondorioz gauzatu da. Arrasaten ez dagoen azpiegitura antolatzea, argazkiaren munduan dagoen hutsunea betetzea, Arrasateko talde desberdinekin elkarlanean ekintzak antolatzea eta urtean zehar ikastaroren bat eta ekintza desberdinak antolatzea dira beren xedeetako batzuk.

Aipatutako helburuak betetzeko Udalari lokala eta zenbait material eskatu diote, beharrezkoa duten azpiegitura jarri ahal izateko.

Aipatzekoa da, Asa taldeak Arrasaten Euskararen Erabilpena Areagotzeko sinatu zen hitzarmenarekin bat egin duela eta ondorioz, beren iharduera euskaraz burutzeko asmoa dutela.

Bilera egin ondoren, AEDn afaria egin dute elkarteko kideek.

Asa taldea, talde irekia da eta argazkigintzan interesa duen edonork parte har dezake. Informazio gehiago 79 80 86 tfnoan, Jabier.

AEDren lehen mintegia

AED elkarteak bere lehen mintegia burutzen dihardu egun hauetan. Larunbatean egin zuen lehen ekitaldia 51 kideren parte hartzeaz eta bihar bigarren saioa izango da San Viator ikastolan.

Mintegia AEDko lan-arlo desberdinetan parte hartzen ari direnei eta, azken finean, bazkidego osoari protagonismoa eta bere eritzi, kezka, kritika eta proposamenak plazaratzeko aukera emateko beharrezkoa ikusi delako eratu da.

Joan den larunbatean, AEDren gaur egungo egoera aztertu eta bere ihardueraren balorazio kritiko egin zen. Julen Arejolaleibak berriaz, AEDren lanaren norabidearen teorizazioa egin zuen.

Bihar berriaz, AEDren oinarriak eta ildo nagusiak aztertuko dira.

Mintegi ostean, afaria izango dute batzarkideek.



Lua
gozokiak

Erdiko kale 8,
Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE

UDALA

Auto-eskola
Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

SANIDES

Parasitoel aurre egiteko
Intsektu narraziak akabatzeko,
arratoiak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81


URONDO
elektrizitatea

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak


Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

KAJOI TAFERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27



Apirilaren 3an hasi, eta San Juanak inguruan bukatuko da AEDren egoitzan antolatu duten **Trikitrixa Ikastaroa**. Hogeiren bat emakumek eman dute izena, eta hantxe ari dira jo eta ke, **Jose Mari Nazabalen** ardurapean: asteartero eta ostegunero, hiruretatik bostak arte luzatzen diren saioetan.



Jesus Artzamendi mondragoetarra Amatiñok ETBn zuzentzen duen **Astelehen buruzuri** mahainguruan hartu zuen parte, Xabier Kintana, Arantxa Urretabizkaia, Iñaki Perurena, etabarrekin. Gaia, jendeak ikasteko dituen arrazoiak. Jesus Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Zientzietako Institutuko zuzendaria da.



◀ Elgetan emanaldia zuela eta, **Koldo Ameztai** Hazparneko ipuin-kontalariaren bisita izan genuen Arrasate Press-en. Liluratuta etorri zen Monterroi parkearen edertasunaz. "*Euskararen parkea*" deitu zion berak, Arrasateko kaleetan barrena gaztelania barra-barra entzuten zuen bitartean, Monterroiko parkean zeuden ume eta gazteek euskaraz egiten zutelako berba. Argazkian Koldo Ameztai, Bego Zubia eta Goio Arana.

Joan zen martxoaren 31n ezkondu ziren **Amaia Moreno** eta **Jesus Aizpurua**, Arantzazuko Amaren eleizan. Eztai bidaian Madeirara hurbildu zitzaigun bikotea, berriro eguneroko bizitzara itzuli aurretik. Aurrerantzean, mila zorion! ▶



Epelde

AHIZKE-CIM-ek

AHIZKE

▶ barnetegi eratako ingeleseko kurtsoak antolatzen ditu.

Uztailean, Elosuan.

OHOko ikasleentzat

Uztailaren 3tik 12ra, 6. mailakoentzat.

Uztailaren 16tik 25era, 7. mailakoentzat.

Informazio gehiago nahi baduzu dei ezazu tfno. honetara: 79 01 32



ETXE-AUNDI

Dastapen-menua maiatzaren 18rako

- Meloi-zuku hotza otarrainskekin
- Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoekin
- Txahal-solomoa espinaka gainean Rossini saltsaz
- Errekako amorraina ziapere sabaionez eta piper muturtxodunen saltsa
- Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpolaz

2.900 pzta BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI



izen propioak

■ **Jose Luis Lana**, 53, Murietan jaiotako zinegotzi arrasatearra, Arrasateko Udala-ren ordezkari izendatu dute Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalean. Jose Luisek Ofizialia ikasketak ditu eta azken 28 urteetan Fagor Elektragailuetan lan egiten du.

■ **Asier Agirrebeña**, 23, Bergarako "Gaberixa" base-rikkoa, S. Antonio auzoan. Deba Garaiko II. Txiste Txapelketan irabazela izan zen. Asier Launko Lantegian ari da lanean eta iaz ere Txiste Txapelketan irabazle suertatu zen.

■ **Imanol Moreno**, 25, arrasatearra, Pintura eta Grabatu erakusketa egiten ari da hila-bete honetan Oñatiko Etxe Aundi aretoan. Imanolek, Arte Ederrak ikasi zituen Leioako Arte Ederretako fakultatean. Grabatugintzan espezializatu zen. Duela gutxi Osakidetzak antolatutako pintura lehiaketan, saria jaso zuen. Pintura monitorea da Monterronen .

Seiak laurden gutxi ziren. Gure erredakzioko mahai, aulki eta enparauak dantzan hasi ziren. Une batez San Frantziskoko lurrikara etorri zitzaigun gogora. Baina ez, San Juanetako Haur Danborradaren entseiuak ziren. SUDCen ardurapean, 130 ume danborrak berotzen ariko dira astelehen, asteazken eta ostiraletako arratsaldetan, ordubetez. Orain badugu aitzakia garagardotan joateko.

Barra-barra ari dira banatzen aspaldi honetan Saski Naski lehiaketako sariak arrasatearren artean. Okendo Kirolak-eko zapatilak **Juanma Agirrerentzat** izan ziren; Etxe Aundiko afaria **Iñaki Andueza**rentzat; Ikatzeko argazki-kamara **Jurdana Ayalarentzat**; eta argazkian agertzen ez den arren, Aranzabaleko aspiragailua **Jose Luis Abuinentzat**. Eta zuk, oraindik ez duzu parte hartzen? ▶



AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia doan

Kontzesiño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

Traba guztien gainera

Elbarritu fisikoak, talde kontzientziaren bila

Bizitzare horrela eraginda, pertsona batzuk mota -desberdinetako murrizpen fisikoak jasan behar izaten dituzte; bai jaiotzatik, bai istripu madarikatu baten ondorioz...eta kontua da aurrera egin behar izaten dutela, eguneroko bideari eutsiz.

Bide horretan geuk guztiok beharko genuke parte hartu; akaso horrexegatik, euren mundura hurbildu gara honakoan.



Eskaileren ordez arrapalak beharko lituzkete; arrapala ugari...

Arrasaten, ehundik gora dira gaur egun dauden elbarritu fisikoak; hori bai, pertsona hauen gaitasun falta ez da berdina kasu guztietan. Badaude batzuk behatz bat galdu dutenak; beste batzuentzat, gurpil-aulkia eguneroko lagun.

Etiketarik irteko ere trabak

Gurpil-aulkian bizi den edonork, etiketarik irteko soilik traba ugari gainditu behar ditu: eskailera, ate estuak, espaloietzak, etab.

Hori gutxi balitz, gainera, inguru hauetan ez dago garraio bide egokirik. Autobusa hartzeko orduan, adibidez, sekulakoak eta bi egin behar.

Zer esanik ez, Arrasate ez dago baxterre ondo prestatua pertsona hauen zatiarentzat. Edifizio publikoetan, adibidez, Udaletxera sartu behar, eta ezin; kiroldegira hurbildu nahi, baina sarrera bera izugarritzko oztopo bihurtu. Hala ere osatuko genuke zerrenda ikaragarri

luzea: zineak, Monterroneko liburategia...

Ezin dituzte erosketak ere bakarka egin, dendak ez daudelako eurentzat prestatuta. Eta gure tabernatan, beste hainbeste.

Gogorra da, baina horixe da Arrasateko elbarritu fisikoei eskaintzen diena: deus gutxi.

behin bakoitza bere lantokira eramateko erabiliko litzateke, eta aztertu ere aztertuko dira astialdian irteerak antolatzeko aukerak.

Horrez gain, berrizte lanak egingo diren edifizio publikoetan, kontutan hartuko dituzte elbarritu fisikoen behar eta eskubideak: igogailuen ezarpena, eskaileren presentzia nolabait murriztea, arrapalak jartzea, etab.

Goitik behera berregokitu duten Udaletxe zaharrea adibidez, kontutan hartu dute errealitate hori. Kiroldegiko ordezkariak ere ekin diete elbarrituekin egindako bilereki, euren beharrik ezagutzeko. Etorkizunean, Anbulategia eta Eskualde Ospitalea berrizten dutenean ere, beste hainbeste egingo omen dute.

Lan mundua eta gizartea

Argi dago, ordea, nolabaiteko konponketa horiekin ez dela arazoa amaitzen. Badago funtsezko beste pausurik: benetako integrazioa.

Lan munduan, adibidez, oraindik gaur hutsune ugari ematen da. Legearen esanetan, berrogeitamar langiletik gorako edozein enpresatan, plantilaren %3a gutxienez elbarritu fisikoak beharko lirateke izan. Inguruko enpresen artean, osterara, inor gutxi betetzen du lege hori. Akaso LKA, Alejandro Altuna eta Polmetasaren salbuespenak aipatu behar.

Eta gizarteak? Zer egiten dugu guk

Elbarrituen bizitza normalizatu beharrean gaudela jabetu beharra daukagu guztiok

Erantzunak noiz?

Gaur arte, ez da inortxo arduratu hutsune ikaragarri horiei beharrezko erantzuna bilatzeaz. Dena den, ematen ari dira lehenengo, funtsezko urratsak.

Seguraski irailerako martxan egongo da hamabosten bat lagunentzat egokitutako furgoneta. Lehenik eta

geuk pertsona hauen alde? Normalean etxean arazoa daukatenak, edo asko botata, lagunak izaten dira kezkatzen diren bakarrak.

Beharbada kontzientziazio kanpaina serioa bultzatu beharko litzateke, eta batez ere autokontzientziazioa landu; azken finean, guztiok bait gara

jende honen bizitza edertu, hobetu eta normaliza dezakegunok.

Taldea izatea, taldea...

Elbarrituek, euren aldetik, argi izan beharko lukete hobe dela talde bezala funtzionatzea, bakarka baino. Alde batetik eskubideak defendatzeko orduan, baina baita beste hainbat ekintza burutzeko orduan ere: antzeko murrizpenak dituztenen artean kirol taldeak osatu, ikastaroak antolatu, irteerak egin, udalekuetara elkarrekin joan, etab.

Azken finean, eguneroko bizitza euren zain dagoelako, eta ze demontre, eguraldi txarrari aurpegi ona erakutsi behar zaiolako!



Kirolaren bidez lagunak egin; eta lagunekin elkartzean, makina bat irriparre.

Ima Gordovilla, txanponaren beste aurpegia

Ima Gordovillak 19 urte ditu. Erguinen bizi da, eta zazpi zituenetik Bergarara joaten da egunero, ASPACeren tailertera.

Jaiotzatik, eguneroko laguna izan du gurpil-aulkia, eta, noski, aulkiaeren atzeko pertsona. Luzaroan hitzegin dugu Imarekin elbarrituen arazoari buruz; eta gutxika-gutxika, filosofia berezia aurkitu. "Bai noski arazoak ditugu, eta zer, beste pertsonak ez ala?"

Ez dutela asko eskatzen. "Eskailera gutxiago, eta arrapalak, arrapalak espaloiertzetan, kalean bakarrik ibiltzeko gai izan gaitezen".

Petanka eta bolajokoaren arteko nahasketa den Boccia-jolasean, Euskadiko txapelduna dugu arrasatear hau. "Begira, txarrena etxean gelditzea da. Ni, neure gaitasunaren

neurrian oso aktiboa naiz. Trabarik handiena pertsona normalak dira; kaleko jendea da gurpil-aulkia beti buruan sartuta duena!"

Egia da, bai. Lelotuta gelditzen gara elbarrituen aurrean. "Ezezagunak hurbiltzen direnean, sarritan aulkiaeren atzean datorrenari galde-tzen diote nola dudan nik izena; kontxo, nire izena neuri galdetu!"

Bidaiatzea izugarri gustatzen zaio, berdin dio norantz. Uda partean familiarekin Errioxara, edo Benicasim-era. "Oporton ere ondo baino hobeto pasa nuen, elbarrituen arteko Olinpiada Iberikoetan. Zenbat lagun, eta nolako barreak egin genituen..."

Neguan, nahiz eta elurra, izan egunero esnatu ohi da Bergarara joateko gogo bizian. "Hantxe, eskolan eta tailerrean daudelako nire

lagunik orienak, monitoreak eta neurearen antzeko arazoa duen jendea. Pentisa, nobioak eta guzti diren bikotea daukagu gure artean: hor egoten dira biak aulkietan elkarrekin".

Ez dira, gainera, parrandari uko egitekoak. "Bergarako Udalari, alboan daukagun taberna batera sartzeko arrapalak eskatu, eta jarri egin zituzten. Orduatik, ederto. Gutuna idatzi genion Alkateari eskerrak emanez. Eta ikustekoak, ikustekoak dira Haratuzteetan montatzen ditugun juergak!"

Imak, bestalde, izugarrizko pena hartu zuen, Abaroan egindako bileran ia bakarrik aurkitu zenean. Gurasoak asko, baina gurpil-aulkietako neska-mutilik ez. "Horrela ez goaz inora. Geuk ez badugu ekipo bezala funtzionatzen, jai daukagu!"

**X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA**

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67

San Jose Policlinica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

BRANKA

jatetxea

Eguneko menua eta karta

Hau oso ezberdina da.

ESCRITURA: MONT BLANC SHEAFFER PARKER WATERMAN PELIKAN
 WECLE TOMBO SAILOR LAMY DANIEL HECHTER OMAS MATERIAL
 ESCOLAR: CARPETAS CUADERNOS PARDO UNIPAPEL SARO BCN
 TRAFIC CLAIRFONTAINE BOLIGRAFOS PORTAMINAS REGLAS TIJERAS
 PEGAMENTOS PINTURAS ROTULADORES STABILO JOBI INOXCROM
 PENTEL PILOT UNIBALL MATERIAL DE OFICINA: ARCHIVO LIBROS
 CONTABILIDAD CINTAS ADHESIVAS CORRECTORES ETIQUETAS ARTICULOS
 CLASIFICACION FICHEROS DOSSIERS MIQUEL RIUS ESSELTE QUER ALT
 TIPPEX 3M SCOTCH TESA PRITT BIC EL CASCO VELLEDA PETRUS
 STYB DIBUJO TECNICO: PARALEX ESTILOGRAFOS COMPASES STAEDLER
 FABER CASTELL ROTRING LASTER COMTE AGENDAS: FABIO FENCCI
 QUO VADIS EXACOMEA REGINA LUXINDEX NAVA DESIGN KENY
 DEUSTO MYRGA ADDEX PAPEL: REGALO DECORACION ESCRITURA
 DIBUJO TECNICO BELLAS ARTES CHAROL ESCAPARATISMO CAJAS CARTON
 CINTAS COMPLEMENTOS PAPEL PINOCHO SEDA
 CELOFAN FORROS CANSON GUARRO
 POSTALES: SPARD CARDS HOLLMARK MUSICALES
 SNOOPY GARDFIELD FELICITACION HUMOR
 MARROQUINERIA: ATACHES BILLETOS
 JUEGOS ESCRITARIO PORTADOCUMENTOS
 PAPELERIA FANTASIA: CLASIFICADORES
 PLUMIERS MOCHILAS PORTALAPICES
 CARPETAS BLOCS HOSTELERIA:
 MANTELES SERVILLETAS PLATOS VASOS
 BLONDAS BANDEJAS ARTICULOS FIESTAS

J. URIARTE

TAMAYO

M. PA. A.

Y. PEL. O.

Hau dena Tamayon duzu.
Gipuzkoako markatal idei irabazgarriena.

BERRIA
ARRASATE Ferrerías Kalea, 32

DONOSTIA Legazpi Kalea, 4
ORDIZIA Amerika Kalea, 2

“Gazte langabetuei irtenbidea eman behar”

Sabin Martiartu

Sabin Martiartu, Deba Garaiko Udal Elkartean bailarako Lanbide Heziketaren ardura darama. Eskola Politeknikoko irakaslea azken 31 urteetan, iaz Lanbide Eskola sortzeko asmoaz hasi zen Udal Elkartean lanean. Lanbide hastapen eta lanerako prestakuntza ikastaroen ardura bereganatu du.

— Zer dela eta hasi da Deba Garaiko Udal Elkartea lanbide irakaskuntzak bereganatzen?

— Sabin: Esan beharra dago, gaur egun araututako irakaskuntzatik kanpo ikasleen %30a geratzen dela. Hau da, ez dute ohizko ikastetxeetan ikasteko aukerarik, ez dituztelako aurreko ikasketak gainditu. Neska-mutiko horiei nolabaiteko irtenbidea eman behar zaie. Europako Ekonomi Elkarteko estatu guztiek arazo berdina dute. Oso zaila da horren zergatia azaltzea; edozein modutan, gaur egun eskoletan gero eta maila handiago eskatzen zaie ikasleei, eta askok eta askok ezin dituzte ikasketak horiek gainditu.

Bestalde, errekonbertsioak direla eta ez direla, eta lantegi eta banketxeetan gero eta jende gutxiago behar dutenez, langabezia handia dago. Jende horrek zerbait ikasi behar du etorkizunari aurre egin ahal izateko.

Gure ikastaroetara hurbiltzen den jendeak bestetik, kultur maila oso baxua du askotan. Lanbide-eskolan dugun ikasleen erdia baino gehiago, esaterako, ez da eskola graduaturik. Hori ere arazo larria da.

Edozein modutan gure bailaran, beste bailara batzuetan baino irtenbide gehiago dute.

— Zeintzuk dira irtenbide horiek?

— Guk, lanbide eskola izateaz gain, lanerako prestakuntza eta lanbide-hasiara planak ere baditugu. Lanbide eskola iaz 70 ikaslerekin hasi zen. Ikasle hauek, lanbide bat ikasteaz gain, soldata ere jasotzen dute. Donostiak esaterako, guk baino askoz biztanle gehiago duen eskualdeak ez du Lanbide-eskolarik. Beraz, alde horretatik nahiko ondo gabilta. Oso esperientzia interesgarria da hau.

Lanbide-hasiara ikastaroak 16, 17 eta 18 urteko neska-mutuei eskaintzen dizkiegu. Ikastaro hauetan, ezin esan dezakegu lanbide bat ikasten dutenik, baina behintzat oinarritzko ezagupenak


“Iaz eskaiolista ikastaroa antolatu genuen eta denek aurkitu zuten lana”

jasotzen dituzte. Lanbideren batez interesa hartuz gero, beren buruak treba ditzakete. Sukaldaritza ikastaroa egin duenak, esaterako, pintxegisa edo, egin dezake lan.

Azkenik, lanerako prestakuntza ikastaroak eskaintzen ditugu. Ikastaro hauek, hamazortzi urtetik gorakoei eskaintzen zaizkie.

— Ikastaro ezberdinak zein erizpideren arabera antolatzen dituzue?

— Lehenik eta behin merkatu azterketa egiten da. Hau da, merkatuan zein hutsune dagoen ikusi eta horren



Sabin Martiartu

arabera antolatzen ditugu ikastaroak. Igeltsero falta dagoela? beno, ba igeltsero ikastaroa antolatzen dugu. Irtenbideak ematen ere saiatzen gara. Guk igeltsero, eskaiolista etabekin harremanak ditugu eta ikastaroa amaitutakoan eskaintza luzatzen diegu. Iaz, esaterako, eskaiolista ikastaroa antolatu genuen eta ikasle guztiek lana aurkitu zuten.

baina nire asmoa beraiek beren kabuz zerbait egiten ahalegin daitezten bultzatzea da.

Lanbide Eskolako ikasleei, azken urtean gestio ikastaroa ematea da helburua, beraiek jakin dezaten zein aukera duten, kooperatiba, lan-elkartea edo bestela antolatzeko orduan. Inork kontratatuko ote dituen zain egon beharrean, eurak ahalegin daitezela enpresa txikiren bat antolatzen. Arotz eta igeltsero elkartu esaterako, eta enpresa txikia egiten hasi. Hala eta guztiz ere, ikasleek kultur-maila altuagoa izatea eskertuko litzateke, liderrak behar izaten direlako zerbait egiten hasteko, ekimena duen jendea.

— Etorkizuna beraz, beltz ikusten duzu?

— Ez dakit ba. Gure garaian, enkofradore eta antzeko lanak inork ez zituen egin nahi. Gaur egun, ez dago lan horiek egiteko gai den pertsonarik. Guk ikastaroak eskaintzen ditugunez, irtenbidea izan dezakete.

Hala ere, gure garaian lantegiaz kanpo norberaren kabuz zerbait egiteko gogoia jende askok zuen, ekimen hori galdu egin da.

— Zerk bultzatzen du jendea ikastaro hauek egitera?

— Beno, denetik dago. Batzuk ikastaro bereziren bat egin nahi izaten dute, baina askori berdin dio gauza bat edo beste egitea. Egun osoa kalean eman ezin dutenez, hona etortzen dira. Dena dela, askotan gurasoek bultzatuta etortzen dira.

— Beraz, ikastaro hauek egin ondoren irtenbideren bat aurkitzeko bidea dagoela esan daiteke?

— Beno, esan bezala askotan gu ahalegintzen gara,




Arrasate-Oñati, igandean

Datorren igandean korrituko da Arrasate-Oñati probaren VIII. edizioa. Goizeko 11.30etan Portaloian hasi, eta hamaika kilometro pasatxo bete beharko dituzte korrikariek, helmuga Oñatiko plazan kokatuko delarik. Oñatiko lagun taldea izan dugu antolatzaile, Arrasate Kirolak dirulaguntzaz.



Auto Kross saria larunbatean

Heldu dira 1990eko San Isidroak, eta antza denez, Zigarrolakoak epektakulua emateko gogo bizian daude. Maxi Eroski eta Kiroldegiaren arteko gunean prestatu duten pistan, larunbat arratsaldeko 6etan antolatuko da San Ididroetako I. Auto Kross saria.



Mountain-Bike irteera

Mountain-Bikea gorantza doan modalitatea dugu. Hori ikusita edo, San Isidroetan ere tokitxo gorde diote. Proba igande goizeko 9etan hasiko da Musakolako kiroldegian. San Prudentzio, Zubillaga, Txmeta, Urkulu, Bedoña, eta Anbulategi atzetik pasata, zuzen Zigarrolako helmugara. Ondo edo txarto ibili, bukaeran luntx ederra guztientzat.


Herri Kirolak Musakolan

San Isidro egitarauarekin segituz, igande arratsaldeko 5etarako Herri Kirolak antolatu dituzte Musakolan. Harrijasotzaileak, aizkolariak eta aharitopeka. Aipatu bezala, Zigarrolakoak espektakuluaren bila.

**E D E L
TAPIZTEGIA**

*Gortina
Alfonbra
Koltza*

Bidekruzeta 14, Tínoa: 76 16 25
BERGARA



GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

podiuma

**Enrike Kabiketa,
takarraran egitearen
plazerra**



Enrike Kabiketa Madrilen izan genuen duela aste pare bat, Espainiako maratoni txapelketan korrika egiten. Proba hartan, Enrike hamabigarren postuan heldu zen helmugara. "Oso garrantzitsua izan da niretzat. Ondo egindako lanaren ondorioa, entrenamentu gogorrak. Eta hori, kontuan hartuta autodidakta naizela, bakarrik hasi nintzela eta beti bakarka prestatu izan naizela".

Enrikek hogeitemeretzi urte ditu, eta zortzi besterik ez daramatza atletismoaren munduan. "Beti geldituko zait pena hori, hain berandu hasi izana. Ordurarte, ez nuen inoiz aparteko zaletasunik izan. Bolada hartan, tabernatik tabernara, erre eta edateaz aspertu eta korrika egiteari ekin nion".

Bere mundua, fondoa. "Abiadura eta erdi-fondoko lasterketak gazteentzat dira, sasoi ikaragarrian egon behar zara ehun, berrehun edo zortzirehun metroko probatan onaz izateko. Urteak aurrera, lasterkariok distantzia luzatu behar izaten dugu, erdi-fondo eta fondorantz".

Eta bera behintzat, badirudi gustora dagoela halakoetan. "Pozik nago egindakoarekin, baita harrirituta ere; berandu sartu nintzen saltsa honetan, zerotik, eta aurrean Espainiako txapelketan 12. postua lortzea sari ederra iruditu zait".

Atleta ororen ezaugarria izan ohi

da, ostera, egunero marka hobetzen saiatzea. Akaso horrexegatik, dagoeneko Enrikek borobildua du bere hurrengo erronka. "Datorren urtean berrogei urte beteko ditut, eta ondorioz veterano mailan korrituko. Gauzak ondo badoaz, maila horretako Espainiako txapela eskuratzeko gustanuko litzaidake".

Pistan ere ari izan da, baina gutxi. Halere, Arrasate Kirolak atletismo taldea Euskadiko boskarren onena den une honetan, Enrikek badu zerikusirik. "Nik 5.000 eta 10.000 metroak korritu nituen Anoetan, baina ez zegoelako beste inor. Tamalez, orain arte behintzat ez da egon atletismo pistarik inguruetan, eta Jausoro, edo Zalama, edo beste asko bezala, errepide bazterretan egindako korrikalaria naiz".

Eta hor omen dago etorkizunaren gakoa. "Gazteei pistak eskaini behar zaizkie, bestela, alde egingo dute. Futbol-zelai, saski eta eskubaloi kantzak nonahi aurkitzen dituzten bezala, halaxe behar ditugu pistak".

Jose Antonio Gay

Badajozera hurbilduko da asteburuan Jose Antonio Gay atleta arrasatearra, Espainiako 200 metroko Txapelketa unibertsitarioan parte hartuz. Asmoa, irabazteaz aparte, joan zen denboraldian lortutako 21 segundu eta 57 hamarrekoko marka hobetzea. Zorte on!

San Isidroak eta kirola

Aurtengoan, badirudi kirolak eramango duela San Isidro jaien pixu nabarmenetakoa. Hasteko, ostiral arratsaldeko 4.30etan egingo den jubilatuen bolajoko txapelketa.

Larunbatean, goizeko 11.30etan futbito txapelketaren finalak; 12etan, irristola edo santxeski erakustaldia; 4.30etan hasita, III. San Isidro Xake txapelketa jokatu da; 5.30etan, Soka-tira proba; eta larunbatarekin bukatzeko, gaueko 10.30etan hasiko den San Isidro V. Bolajoko Txapelketa.

Igandean, bestalde, Mountain-Bike eta Herri kirolez gain, gogoratu goizeko 10.30etan pala-sarien partiduak jokatu direla kiroldegiko frontoian.

Nork eman gehiago?

Pedruskok irabazi

Gasteizen jokatuako neurketan 1 eta 2 irabazi ondoren, aukera polita daukate San Andresekoek Koparen finalerdietara pasatzeko. Horretarako, igande honetako partidua irabazi behar. Aupa!

Saskian mailaz jaitsi

Konfirmatu besterik ez, Arrasate Kirolak saskibaloi taldea mailaz jaitsi dela azkenean. Zorte txarra.

ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Zarraoa

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI 3,
Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

III. Gailurra eta amildegia

Triste eta aburrituak akaso, baina *Baga Biga Higa* espektakulua oso inportantea izan zen. Bera da *Ez Dok Amairuren* lanean gailurra.

“Sentikaria” bataiatu zuten emanaldi hura, 70eko udan estreinatu zen Portugaleten, eta bi urtez han-hemenka ibili zen Euskal Herrian zehar. Kanpoan ere bai, Madril, Bartzelona, Britainia eta beste hainbat lekutan emana izan zen.

Taldearen ezaugarriak Baga Bigan dute espresiorik helduena. Planteamendu formalak, gaien erabilera eta molde estetikoak espektakuluaren osotasunean guztiz lotuak agertzen dira. Sentikariaren arrakastak eraginda, lan hura diskoratu asmoz grabaketari ekin zioten, baina azkenean ez zen diskorik izango. Erabaki hori hartzerakoan sortu zen istiluan taldea desegin egingo da, 72an.

Ez Dok Amairuren desegiteaz bertio desberdinak eman dira eta, agian,

guztiek izango dute zerbaiten oinarria. Izan ere, horrenbeste arrakasta lortu zuen mugimenduaren desegiteak nekez izan dezake kausa bakarra. Arrazoi politikorik badago, noski. Hasieratik *Ez Dok Amairu* ELA barruko korronte bati nahiko atxikia agertzen da.

.Eta ez bakarrik Joxe Anjel Iriagarraik bertan duen zereginagatik, Laboak eta Lertxundik ere badute horretan zerikusirik. Urte batzuk lehenago sortu den ETAK, berriz, gero eta eragin handiagoa du eta bere inguruko jarrera erradikalagotuz doa. Burgosko epaiketa, ikastolak burgesak omen direneko istilua edota kantarien profesionaltasunarena euskaldungoa zatikatzen duten auzi bilakatzen dira, eta dinamika horretan *Ez Dok Amairuren* barne-batasuna galdu egiten da. Testuinguru horretan, Irigarainen jokabidea erabakiorra izan daiteke desegitea gauzatzeko orduan, baina arazoa sakonagoa zen.

Bestealde, apurketa suertatu zeneko taldekideak ez ziren jadanik hasieran kantari izan nahi zuten gazte haiek. Denboraren eta lanaren poderioz, bakoitzaren nortasuna garatua goa zegoen eta taldea bera zenbaitek barruan zeramanaz erditu ahal izateko hesi estuegia gerta zitekeen. Gerora Lertxundik, Laboak, Letek edo Artzek, bakoitzak bere aldetik egin duten lanak indartu egiten du hipotesi hori.

Kontuak kontu, 72tik aurrera *Ez Dok Amairu* banatu egingo da eta partaide bakoitzaren bakarkako lana hasiko. Taldeak aurrerantzean egin zezakeenaz amesteak ez du zentzurik eta gainera hor daude haietariko batzuen lan bikainak nostalgiari aurre egiteko. Pena, hori ba, eta pena galanta Baga Bigaren grabaketa historiko hura galdu izana. Snif!

Mikel Irizar
(Jarraituko)

AE ELKORO

AE

Magdalena 29-31,
Tfnoak: 79 18 86 - 79 45 99
ARRASATE

TB
HIFI
VIDEO-CLUB
ZERBITZU TEKNIKO

BLAUPUNKT
PANASONIC
PHILIPS
HITACHI
MITSUBISHI
SONY

AE


Garibai 10,

ETXEKO TRESNAK
ARGITERIA



SATELITE BIDEZKO TB
TELEBANAKETA

DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aiki berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zurtz-lamuzko azalak, 24 kilatetako urez sutan eginak estarpazioekin.
- Landare-hariz jositako pieguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokonposizioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakumi eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

DICCIONARIO AMAIA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



Euskara ikasteko erabili beharreko obra

OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

Ernesto Amaia Argitaletxea
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
 Tfnok: 94-445 46 89 eta 446 69 93

Euskara eta administrazio publikoa

Aurreko astean Dekretuez hitzegin genuen. Oraingoan, ostera, Dekretuak bete arazteko bideez hitzegino dugu.

Administralgoaren iharduera ez da mugatzen menpekoen arlo juridikoa postiboki bete araztera. Ihardunbide guztiz zabala du, eta organo propioak nahiz kontratuzkoak ditu, horien funtzionamendua berak gidatu eta kontrolatu egiten dituelarik. Ikus, adibide moduan, Irakaskuntza publiko eta Ederlan Ministraritzak, bere 1924-2-12ko Aginduz arautzen duena:

Agindu hau Unibertsitateetako Erretoreei zuzendua da, eta Lehen Mailako Irakaskuntzako Eskola Publiko nahiz Pribatuaren inspektzioaz ari da: "Funtzionari horiei dagokie Ministraritzak honetarik ateratako erabakiak oso osoan bete araztea, eta Eskolak bisitatuz beharrezko liratekeen neurriak hartzea, edota ixtea, baldin eta Eskolaren batetan, Erakunde ofizialek fundatuak eta subentzionatuak direnetan bereziki, erabiltzen diren testuak Aberria eta beronen batasunarekiko

maitasunik handiena *nabariki* irakaskuntzaren oinarriak funtsezkoena litzateke hau".

Administrazio espainolaren hizkuntza espainola izan da beti. Are gehiago frankismo garaiko administrazioan. Frantismoan, administrazio honen lehen lana garbiketa-lana da, hau da, marxismoaren eta separatismoaren okerrak zuzentzea eta bide berriak markatzea. Hauxe da frankismoaren mezua: maite ezazu Espainia, eta aldi berean jaungoikoa maite izango duzu. Espainiak zori ona emango dizu lurrean eta Jaungoikoak zeruko erreinuan.

1941ean Gipuzkoako Gobernu Militarrak euskara debekatzeko publikatu zuen debekuari "Diario Vasco" egunkariak bere kasa erantsitako oharra: ondotoxo adierazten digu zer egin behar genuen euskaldunok español izateko eta España maite izateko. Erdaraz.

Batasun linguistiko hau lortzeko emandako Dekretuak bete arazteko moduak ez zuen izan mugarik.

Ikusi, bestela, 1968an gertatutakoa, frankismoak bere urterik gogorrenak emanak zituenean, hain zuzen. Satrustegik kontatzen digu:

"Nafarroan nik ezagutu dudak zapalketarik gogorrenetakoa herri batean maisuak egiten zuena da. Ergoien herrian eskolan euskaraz hitz egiteagatik jo egiten zituen haurrak. Neu joan nintzen zer gertatzen zen ikustera, eta hamahiru urteko mutiko bat ikusi nuen maisuak buruan irekitako zuloa urte batean itxi gabe zedukana. Herriko maisuak aho biziko erreglarekin irekitako zuloa.

Beste neska bati konpasaren orratz bien muturrekin estutu zion mihia, eta mihi azpiko lokarria eten. Odola zeriola bidali omen zuen gero etxera. Behin eta berriz Inspektzioara salakuntza egina zuten, baina alferrik".

1968an hau gertatu bada, zer ez zen gertatuko gerra garaian eta gerra ostean? Irakurle askok badakite, bai.

Atalataikoan



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE

Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Alkohola


Alkoholari eta honen ondorioei buruz ezjakintasun handia dago jendearen artean, nahiz eta handia izan beronen kontsumoa.

Modu askotan eta arrazoi desberdinengatik edaten dugu alkohola. Gure arteko gehienok, ordea, ez dugu jakiten zer ari garen edaten ezta zehazki zer ondorio dakarren ere.

Alkoholak -whisky, garagardo, ardo, ginebra edo beste edarietan aurkitzen denak- beti substantzia berdina darama. Berdin dio mahatsaz, garagarraz, artoaz...egina izatea: alkohola beti alkohol da.

Bi edari berdinak ez izateak ez du zerikusirik edari horien alkohol-motarekin; desberdintasuna alkohol-kopuruan eta edariaren beste osagaie-tan egoten da.

Edaten dugun alkoholaren izen zientifikoa Alkohol Etiliko edo Etanol da. Honetaz aparte badaude alko-



hol-mota batzuk ere, Alkohol Metiliko adibidez, batez ere industrigintzan erabiltzen dena; edanez gero, honek itsutasuna eta heriotza ere ekar lezake.

Alkohola, "fermentazio" deritzon prozesuaren ondorioa da. Hau, azu-

kre-portzentaia handiko fruitu eta landareak geldi-geldi uzten direnean gertatzen da, denboraldi luze eta tenperatura egokia behar dutelarik. Zirkunstantzia hauetan, airean eta fruituen azalean dauden mikroorganismo batzuk "lanean" hasten dira azukrea eraldatuz. Aipaturiko prozesuan substantzia desberdinak agertzen dira eta horietako bat da alkohola.


Fermentazioari esker, alkoholak asko ez duten edariak lortzen dira (ardoa, garagardo, sagardo), gutxi gorabehera % 15eko alkohol-portzentaiaz, lanean ari diren mikroorganismoak hil egiten bait dira. Beraz, edari baten alkohol-kontzentrazioa gehitzeko baliabide artifizialak erabili behar dira, hauetako arruntena "destilazioa" delarik. Honen bitartez lortzen dira wiskeya, ginebra, vodka, anisa, etab.

Eukeni eta Arantxa

Txotxongiloa

GORAKADA ZIRKOA

Maiatzak 12,
arratsaldeko 6etan
Amaia antzokian
Sarrera: 200 pta.



Arrasateko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gora abentura, Besaiderekin

Ederra izan zen, zalantzarik gabe, Besaidek antolatuta Vall de Aranen pasa genuen lau egunetako asteburua.

Giro onez eta denbora ederez gure denborak Joan Ventosa aterpe inguruan eman genituen. Aipagarria da lehenengo egunean, larunbatean, egin genuen igoera. Autobusak balneario inguruan utzi gintuen, gorago igoten izutu egin zelako eta autobusez egitea pentsatua genuena, oinez egin behar izan genuen.

Guztira lau ordu izan ziren, batzbeste, lau egunok pasatzeko gauza guztiakin gainean egin behar izan genituenak. Nekagarria.

Igandean Montardora igo genuen, hiru ordu t'erdiko ibilaldi samur batez, eskiazaileak ziren nagusi 2.800 metro pasatxo zituen



tontor hartan. Astelehenean berriz, 3.000 metroen muga hautsi nahian Punta Altara igo genuen, lautik bost ordura emanez goraino igoteko. Punta Altak dituen aldapak latzak eta zakarrak izanagatik igoterako orduan jaisterako orduan, mendi askok ez dituen moduko erriak ditu edurretan labentzeko goitik beherakoan. Askok, beraz, *ipureski* egin genuen,

ez gutxi disfrutatuz, aurretik izerditan ordaindua genuen erremontea merkea izan ez zelako.

Zorionak beraz Besaideri eta animatu horrelakoak antolatzen, jendea etorriko da eta.

Hiru Handiak

Arrasate Presseko mendi sail honetatik esan nahi dizuegu Hiru Handien martxaren izen ematea zabalik dagoela eta Besaideko lokalean egin dezakezuela. Aurtengo haretan 800 pta dira eta Muruan hasi eta Azaien amaitzen da. Guztira 90 km. mendiz mendi. Anima zaitetze eta ea aurten inoiz baino arrasatear gehiago ikusten dugun bertan. Martxa ekainaren 9an izango da.

Hankamotz

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40,
Arrasate 79 13 78

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

**M
A**

ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

Edonora zoazela ere,



eraman ezazu ongien
datorkizun dirua.

AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL

Aste gazte

Bada udako oporrak prestatzen hasteko garaia. Zenbait ekintzatan parte hartzeko oraindik egin behar duzu erreserba. Hala nola, lan-ihardualdietan (Euskadin, estatu espainolean edo atzerrian), udalekue-tan, "au-pair" bazoaz...

Bestela ere, zure kabuz ibili nahi baduzu, Autonomi Elkarte guztiei eta atzerriko herrialdeei buruzko informazioa badugu Gazteentzako Informazio-Bulegoan.

Badakizu, non gaituzun!!

Lan-ihardunaldiak

• Atzerri eta estatu espainoleko lan-ihardualdietan parte hartzeko plazak banatzen ari dira. Interesatuak pasa zaitezte lehenbailehen bulegotik. Prezioa: 5.000 eta 8.000 pta. inguru.

• Euskadirako plazak maiatzaren 14ean hasiko dira banatzen. Mugi zaitezte leku eta datak aukeratu nahi badituzue. Prezioa: 7.000 pta.

Iharduera-bereziak

• Getarian itsasoko iharduerak. 15 eta 17 urte bitartekoentzat. Uztaila eta abuztuan, 15 egun. Prezioa:



15.000 pta. Izena emateko epea: maiatzaren 14etik aurrera.

• Santiagorako bidea. Etnografi iharduera. 18 eta 22 urte bitartekoentzat. Abuztuak 7-28. Prezioa: 15.000 pta. Izena emateko epea: maiatzaren 14etik aurrera.

Gazteria eta natura

• Trabesiak, Parke Nazionalak, Kafiadak eta Ibaiak ezagutu programetan parte hartzeko epea badago zabalik. 11 eta 17 urte bitartekoentzat. Uztaila eta abuztuan, 15 eguneko iraupena. Prezioa: 20.000 pta. Beka-sistema ere badago.

Egonaldiak euskal familietan

• Euskara ikasten ari zaretenoi, 5. urratetik aurrera zabiltzatenoi, programa honek euskal familia batekin euskara ikasi eta praktikatzeko aukera ematen dizue. Egonaldiak hila-betekoak dira, uztailetik azaroarte izan daitezke eta Euskal Herriko zazpi herrialdeetako edozeneitan. Prezioa: 15.000 pta. Bekak ere badaude. Izena emateko epea: maiatzaren 31a baino lehen.

Bekak

• Arrasateko Udalak euskara

ikasten ari diren arrasatearrentzat beka ematen ditu. Kontuan izan:

a) Udan barmetegiren batera joatea erabaki baduzu.

b) Eusko Jaurlaritzaren "Egonaldiak euskal familietan" programan parte hartzea erabaki baduzu.

c) 89-90 ikarturtean euskaltegi batean euskara ikasten ari bazara.

Baldintzez Euskara Zerbitzuan informatuzko zaituzte.

Hizkuntz ikastaroak


• Ingeles, alemanera, italianera eta frantsesera. 16 urtetik gorakoentzat. Data eta leku ezberdinetan.

Bidaia

• 15 eta 25 urte bitartekoentzat Essen (Alemania) eta Holandara bidaia. Uztailaren 14etik 28ra. Lehengo astea Essen-en eta bigarrena Holandan, beleroan. Bidaiaren prezioa: 25.000 pta. (subentzionatua dago). Plaza mugatuak (izena ematen duten guztien artean aukeraketa egingo da). Izena emateko epea: maiatzaren 19 arte.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzuan, ☎ 79 09 00




EGIDO

Ordezko Piezak

Automobilerako ordezk piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11



Fotokopiak

Enkuademazioak

Planoen erreproduzioa

Offseta

Ferrerías. 23

ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,

Tfnoa: 79 31 99

ETXEBIZITZAK

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldean.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bikoteak errentan hartzeko teilatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabea etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo teilatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73
- Bikote batek teilatupea edo pisu txiki- ren bat hartuko luke. Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.

LANA

- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egingo. Deitu tfno honetara: 76 22 68
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 79 77 36
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Tabernan, jabetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikaste- txeeetan eta etxez-etxe bideoak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Kontabilitateko klase partikularrak emateko pertsona behar da. Dei 9etatik aurrera 79 99 82 tfnora. Miren.
- OHoko 7. mailako neskatilari klaseak emateko pertsona behar da. Egunean ordu batez. Tfnoa: 79 83 68. Kati.
- 26 urteko neska etxeko lanak egingo lituzke, orduka, bai goizez eta bai arratsaldean. Tfnoa: 77 04 97 Nati.
- Esperientzia duen neska etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 97 58
- 19 urteko neska euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak dei tfno honetara: 79 54 79.
- Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 21 09. Gaez.
- Latin klaseak ematen ditut. Interesatuak 79 50 88 Tfnoa deitu. Garbiñe.

SALEROSKETAK

- PC erostegatik Toshiba ITX-10 ordenadore salgai, 64 k. Baita ere Sanyo SLIM-3 magnetofonia, 2 Yoystich eta hainbat joku. Guztira: 20.000 pza. Tfnoa: 78 15 86.
- Liburu bilduma salgai. 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Egoera onean. Tfnoa: 79 15 96
- Yamaha XJ 650, BI-AC kilometro gutxi- kin eta merkea salgai. Tfnoa: 79 36 65 Miguel Angel.
- R-12 TS autoa salgai. Interesatuak 79 33 43 Tfnoa deitu, arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Maleta, motxila eta poltsak, era guzti- takoak salgai. Oso prezio onean. Nahi izanez gero, Aramaion San Martin Ikas- tetxean izango dira. Tfnoa: 945-44 50 04
- Bizikleta ia berria salgai. Reynolds 531 Mercier. Pieza gehienak Zeus. Talla: 58. 65.000 pta. Tfnoa: 76 32 69
- Alpen-Kreuzer "Allure" korro denda salgai. 20 egunetan erabilia. Tfnoa: 78 19 87 gaueko 9tik 10era. Mikel

DENETARIK

- Irungo ikastolan kontratu finkoaz lanean arl den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikasleentako irakasleren batekin permuta egingo luke. Interesatuak dei dezatela tfno. honetara: 79 26 69
- Jo ta fuego Poxpoluari. Kontuz zenba- kitxoekin. Amonaren partez pare bat muxu eta besarkada bat. Kontaktua 42 43 52 da (1-3). Goñi

ARRASATEN HILDAKOAK

Isaac Arrieta Larreategi
Maiatzaren 6an. 84 urte.

Marcelino Gallastegi Garaizabal
Maiatzaren 6an. 66 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Famauen ahotik

Bittori Garai; Kuatrobienton tabernie aueneko kontuek (I)



Inguru guztietako jentie baiñe larrei-koik atara ez

Hemen erarixe egoten zan merke. Arabatik ekartzen auen eta zela ez aukien kontribuziñoik pagau biherrik, ba, hona merke ekartzen auen eta hona jente asko etorten zan eta batzuk garrafoiek, beste batzuk botillak eta hola erueten zittuen. Hemen jentie egoten ei zan! jente asko egoten ei zan, Mondrauetik eta Gaartza aldetik eta Aramai-xotik pe bai baiñe Mundra aldetik asko, udelarrak-eta...Baiñe, nire gizonak esaten auen, e, atara ez auieia asko eitten. Itxurie kontzientziako karguei ta pekautei begiketan ei utzien ta ezebez, ur apurtxo bat be ez ei utzien botaten ta ezebez, ixer hartzen auen preziuen emoten auen ta...enpaz eitten ei auen, enpaz.

Santaarra buzkentza iruntzi ezindde

Hemen eukitten ei zittuen San Miguele-tan, ba buzkentzak-eta jakitten ei auen zelan dazen. Da, behin etorri ei jakon Santaauk eta esan ei utzien, "Hi, Paula, bajatozan horreik gaartzarrok, eta ataraizan buzkentzik haundixenak geuk jan daigun. Ta, atara ei eutzien haundixenok baiñe badakitue kalamuekin lotute zela egoten dien ta lapikotik ba kalamu te guzti itxurie, buzkentzok; ta

KONTU-KONTATZAILLIE

... Makatx baserrixen jaixo zan eta 27 urte zituela juen zan Kuatrobientora, hamazazpi seme-alaba zien familixako hamaikagarrrenaz ezkonduete. Oiñ, 74 urte dauko eta bertan bizi da.

atara dutze ta badarautsie Santaarrok jaten da larri. Ta, bateri trabau jako kalamue ez-tarrixen ta larri, "ointxe itto bihe juat ba itto bihe juat" Ta, lagunorrek "zabaldik ahuoi neuk atarako dustat-eta". Zabaldu ei auen ta danga buzkentz ta guzti atara ei zutzen. Gero etorriko zien Gaatzarrok ta hareik txikitxuauek jan biheko zittuen.

Santaarrak, egun bireko-ta

Santaarrak etorten ei zien hola egun bireko-ta, ta hau umez beteta, ta esaten ei utzien, "hi Paula, zartakiñe ta arrautza batzuk ekarriren da han bestetxien jirauko gaittun geu". Honeik bi etxe zien-eta. Ta emoten ei utzien da, han preparau ta jaten ei auen ta han bedar pillan ero eitten ei auen lo, ta hurrengoko goxien urtetan ei auen ta oin piñue-ta, arbolak-eta daz ta Santagera ezta ikusten ondo baiñe orduen garbi-garbi ikusten zan eta gizonok urten horra kantoire ta, andrak umeen batzukin artajorran-ero, behintzet bizi gaittun te etorriko gaittun gabertze".

Sartzen ei zien ta "hi Paula, gure andrak bajarautziene fin asko, guk oiñ jokualdi bat ein bihe jonau, bajaran gizona gertu?" "Bai baiñe, honek lana-ero hau ero bestie ta..." "Gure dana eingo jone lanok, hi". Ein jokualdi bat eta bigarren egunien juaten ei zien.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

Zelebrequerixak

Eibarreko fabrikarik haundixe-naiko baten uezabak urten eban ofizinatik eta mutiko bai ikusi eban almazeneko kajoi baten gaiñian te-beua irakurtzen.

"Holako ganorabako alperrak tailerra jateko besteik etxuek balio izaten. Holakuak mantendu? Zetarako? "On egiñaren pagua ate ostian palua". Neu ikusitta be etxok ikaraik eitten. Horraittio nere taillerrian eztaok iñor neri adarra joteko, eta hau be laster bialduko juat txakurran salara pasiatzera, ze karajo!", ziñuan uezabak bere kautetan eta furrustaka esas zotsan:

—Hi, txikito, kintzenan zenbat irabazten dok hik?

—Hirurehun pezeta.

—Autsaz hirurehun pezetok eta gehixao ez hari etorri, hemen etxau hiru moduko babalararik bihar eta. Gaurtik despatxauta hago.

Diruoi gorde eta estriañau arpegixakin aguro ospa eiñ eban mutikuak bere artian esanaz: "hauxe dok gizona frankua",


Uezabak galdetu zotsan almazeneko kontramaixuai:

—Hi, zein zuan oiñ despatxau doten ganorabako hori?

—Hori? Kajoia bat ekartzera etorri dan estaziñoiko enpliaua.

Juan Martin Elexpuru

Felipe Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate



Antzerkia Ospitale Zaharreko eskolan 1928.

On Jose Markiegi abadeak euskaratu eta Ospitale Zaharreko eskolako ikasleek *Txao* izeneko obra antzeztu zuten. Eskenatokiko dekoratuak eta, On Jose Markiegi berak eta Julio Galartaren artean egin zituzten. *Txao* obra kostunbrista zen, kristauak batetik eta bonzoak bestetik zituena.

Bi lekutan antzeztu zuten obra. Arrasateko Ospitale Zaharrean eta Aramaioko bainuetxean. Bietan jasotako diruak txinitoentzat bidali omen zituzten.

Antzezlariak hauek dituzue. Goiko iladan, ezkerretik eskuinera Wenceslao Lasagabaster, Gregorio Sanpedro, gerra denboran afusilatua, Juan Mari Sanpedro, Oñate, Luzio Berezibar, Uranga, Juanito Yarza, Alejandro Uribetxebarria "Eperra", Xabin Arrieta, Vitoria, Ramon Aranbarri, Angel Azkarra, Paulo Zumelaga eta Julio Galarta.

Lehen iladan ezkerretik eskuinera, Luziano Aranbarri, Guillermo Juldain, Luis Herrera, Antonio Ansoategi, Angel Erguin "Arto-rotz", Pedro Zumelaga, Fakundo Sanpedro, geroago abadetu eta orain Eskoriatzan erretiratua, bera zen *Txao*, Eloi Urzelai, Joxe Mari Uranga "Pexeta", Donato Arregi eta Juanito Axpe.




OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: **Otalora 1ean**
 Biltegi berria: **Meatz-Erreka**

ARRASATE

"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

Nori
bere
laguna

PELLO

"Txakur txikiak
gustatzen zaizkit
neri eta nerea
munduko politena
da"



MARITXU

"Ai zelako txakurra
nerea!"



GARBINE

"Nere txakurra eta
Maritxurena aita
beraren semeak
dira, txakur
onak..."



BENANTXIO

"Nere txakurraren
izenak bost letra
ditu"



TURKO



"Ni beti emakumezkoekin hobeto konpondu
naiz gizonezkoekin baino"

BELTX



"Non lurperatu nuen hezur haundi hura? Hau
memoria txarra nerea!"

XAULI



"Nire jabeak ez du betaurrekorik"

LAU



"Katu usaina dago hemen. Harrapatzen badut,
txiki-txiki egingo dut"

8 NORI BERE LAGUNA
Pello-Lau / Marixu-Turko / Garbine
-Xauli / Benantxio-Beltx.

ENBIDOTik hartua, ELKAR-en baimenarekin

KIDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA

-ek
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

Egonezina

egonezina gehitu:

telefonoa hartu,
zure hotsak kakaztu,
nire zuria balztu,
bizitzak bat ez gaitu,
horrek zu pozten zaitu.

nigan dena nahastu,

gozoki oro gaztu,

ni neu zentzua faltu.

bizitza zuzen doa

inork hobe ahal du?

jan ezak nau ahukdu,

erretzeak makaldu,

inork ezin azaldu,

noiz nik zu zeu afaldu,

esperantza dut galdu.

Itsasoko ur tantarik ederrena,

zeruko lainorik garbiena,

itsaskietan finena,

lorerik usaintsuena,

gudarik baketsuena,

emakumeetan emakuneena,

...

guzti hori eta gehiago zara zu niretzat.

Jon Lekunberri

**ASEGURU
ARTEKARIA**

Zure esanetara gauzkaku!

Maialako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

■ **Telebista eta sexua.** Orain urteak konturatzeke pasatzen bazaizkit ere, hamasei-hamazazpi urte genituela zein geldiro igarotzen ziren! Gure helburua hamazortziak betetzea zen besteak beste Gurean eta bestelako zinematlan nagusientzako filmeak ikusi ahal izateko.

Nagusiagoak ginela, ezin artean modan zegoen porno zinea ikusi eta behin besterik ez bazen, muga zeharkatu genuen Miarritzen porno gogorreko filme haietako bat ikustera. Gure belaunaldien abenturak eta kalenturak!

Gauzak erroz aldatu dira gaur. Aurreko batean antena parabolikoa duten Arrasateko lagun batzuen etxean egon ginen eta afalostean seme-alabeen konpainian egongelan geundela, aita kanal guztien errebasoa egiten hasi zen eta dzast!, han zegoen filme pornoa. Furgoneta gidatzen zuen txoferra jolasean hasi zen bere aldameneko neskaekin, eta frantsesarena egin ostean larrutan hasi ziren, gidatzeari utzi barik noski. Gu ikusten ari ginen eta gure lagunak seme-alabak ere bai, ez pentsa aitak horregatik kanalez aldatu zuenik. Beste hura parafraseatuz edo, telebista elkarrekin ikusten duen familiak batasunean iraungo duela okurritu zitzaidan.

Honekin ez noa nire lagunak juiziorik egitera, baizik eta ilustratu nahi nuen zenbateraino telebistak aldatuko duen gazteagoen belaunaldietan sexuaren perzeptzioa. Ageriagoa zenbaitetan, izkutuagoa beste batzuetan, sexua hortxe dago, pantailan.

Bideodendek, bestalde, sail berezia eskaini ohi dute filme porno edo erdi pornoentzat. Klase sozialek ez bide dute zerikusi handirik hemen, antza. Uribe Auzoak, Arrasateko florea han dago, komunitate bideoa du eta astean behin, asteburuetan, filme pornoren bat jartzen omen dute, gure ejekutibo irakasle eta oro har, andra-gizon serioen gozagarri.


Telebistarekin, inork ez du nortasun agiria hortz artean eraman beharrik menuan eskaitzen diotena ikusi ahal izateko.

■ **Eurosong.** Izen hori jarri omen diote aintzinako Eurovision jaialdiari. Larunbatean 35. edizioa jokatu zen Yugoslavian eta aspaldiko edizio haiek Cliff Richards, Sandie Shaw, Salome, Massiel, Raphael, Abba eta abarrekin etorri zitzaizkidan burura.

Seguruenik edizio haiek oraingoak bezain kaskarrak ziren, baina euren inguruko giroa desberdina zen. Komunikabideek, Espainiakoe behintzat, askoz ere arreta handiagoa eskaintzen zien. Hemen aspaldi itzali zen Eurovisiorekiko interesa. Larunbateko edizioa ez zen salbuespena izan.

Joxe Aranzabal

bideoak



Gerraren hondakinak

Zaldiak paper garrantzitsua izan zuen Erromako Inperioaren erorketan. Ipar eta Ekialdeko Europatik zaldi txiki eta bizkorretan zetozen barbaroei aurre egiteko ez ziren erromatarrak gai izan. Era berean, Islamiar fedea ere zaldi gainean barreiatu zen Mediterraneoaren bazter gehienetara.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).




gusto baduzu

■ **Peter Tosh:** ETBk igandero eskaintzen duen *Kontzertua* saioan, honako honetan Peter Tosh jamaikarraren txanda izango dugu. Goi mailako reggae-a, gaueko 23.30etan hasita. Adi, beraz, eta bideoak prest!

■ **Alfred Hitchcocken ordua:** Azken boladan modan dago Hitchcock maixua. ETBk ere bere unetxoak gordetzen dio astelehenero, gaueko 9etan. Honako honetan, 'Zorkontu latza' kapitulua eskainiko digute; Paul eta Felicity bikotea eztabaidatzen hasi, eta nahigabeen Paulek bere emaztea hilgo du...

■ **Gizakiak azken batean:** Asteazkenean, gaueko 9etan, Otto Preminger-en filmea. Britainia Handiko zerbitzu sekretuaren atal batean informazio irteera dagoela aurkitzen da. Bertan bi pertsonak lan egiten dute; bata ajentea, eta bestea, mutiko gazte ezkongia, bere bizitza inolako ardurarik gabe daramana. Antzezleak Nicol Williamson, Robert Morley eta Derek Jacobi.



Felix Aranzabal, *Angiozarko itsua* 1939an etorri zen lehenengo aldiz Mondragoera, jaietan eta, soinua jotzera. Urte hartan S.Josepen eta Musakolan jo zuen. Harez geroztik 35 urtez etorri izan da Musakolako San Isidroetara maiatzaren 15eko jaiak alaitzera. Ostiralean J.R. Elortzak zuzentzen duen *Erretratoan* ikusi ahal izango dugu.

aste ko

PROGRAMAZIOA

14 ASTELEHENA

20.00 **Berriak** Aurkezlea Koldo Rodriguez
20.20 **Mondrasport**, Jon Anduezak aurkeztua
20.55 S.Andres Herri Eskolak antolatutako "Euskararen astea"ri buruzko erreportai laburpena.

15 ASTEARTEA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Mondrasport** (bezperakoa)
12.55 Bezperako erreportaia

16 ASTEAZKENA

20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua.
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**. Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: HIESA-SIDA Arrasaten. Parte hartzaileak: Ander Andia medikua, Belen Elizalde epidemiologoa, Arantxa Urzelai prebentzioan aditua eta Edume Balanzategi, Arrasateko Gizakia Helburu taldekoa..

17 OSTEGUNA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)

18 OSTIRALA

20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua.
20.20 **Erretratoa**. J.R. Elortzak zuzendua. Gonbidatua Agustin Ibarluzea "Txispas"
20.50 **Musikantoi**. Pepe, Patxi, Mikel eta Asierrek aurkeztua The Jam taldea, Lenny Kravitz, Toy Dolls, Zakarrak taldea, Qyer Boys.

19 LARUNBATA


12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)



Harro asko daude Musikantoi saioko arduradunak *Armored Saint* taldeak ateratako irudiak eta Aramaioko *Xementerio* taldearen *Las ruedas de mi carreta* abestiarekin osotu duten bideo klipaz. Esan dezagun bide batez, jendeari ikaragarri gustatzen zaiola aurkezleen estilo alai eta txoroa. Argazkian Patxi Montero eta Mikel Irizar.



Zenbat buru hainbat aburu mahainguruan Jose Antonio Villaren inguruko zenbait xehetasun jakin ahal izan genuen. *Orquestina Arrasaten* jo eta abestu zuen hamalau urtez. 60. hamarkadan eta, Bergarako *Ariznoa* dantzalekua zapaldu zutenek izango dute haren berririk. Berak adierazi zuen bezala, gau batean 108 abesti jo eta kantatu zituzten. Musikak ere badu bere proletariadoa.



**ARRASATE
PRESS**

77 05 65

EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Beheak jota eta borondate faltaz zabilta. Ez daukazu asmo argirik eta beltza ikusten duzu etorkizuna; seguritatea emango dizun norbaitekin sendotu beharko duzu harremana aurrera egiteko.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Nahi profesionalak garbi azaltzen saiatu. Bakarkako lana betegarria izango da, intuizioak goiari eutsiko bait dio. Lagunarekin tirabirarik ez izaten saiatu.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Ondo ari zara kontrolatzen oinari moduan jarritako aurrekontua; jarraitu ahalmen horren barruan bizi izaten. Amodioa gertu daukazu nor-baitengan sortuko da.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Egiten duzun guztia dakizu estimatzen eta bizi izatea gauza ederra dela pentsatuko duzu. Haserretuta zaudenean ere jatorra eta alai izango zara besteekin.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Negoziorekin zerikusirik daukaten bidaiak urrutirakoak izango dira. Ezkontiderik ez baldin badaukazu, aspaldiko lagun horrek oraindik ez duela etsi ikusiko duzu.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Ondo markatuta daukazu helburuak, eta noiz gauzatuko zain zaudete. Zeure buruaren jabe zaudenean lortuko dituzu baina ez harrotu, gauzak okerreko bidea hartzea ere suerta liteke eta.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Lantokiko edo iraganean amodioren bat bizi izandako norbaitekin abentura luze xamarra bizi izango duzu. Finantzak bide onetik dabiltza eta baliteke etekinen bat suertatzea.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Lanean bilatuko diozu ihesbidea rutinari guztiz betegarria izango bait dira eginbeharrak. Ezkontza izan liteke bion arteko ulergarritasuna sendotzeko bidea.




AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Dakizun dena esateko joera daukazu eta neurri barik hitzegiten duzu. Badira gauza batzuk ixilik gorde beharrekoak izaten direnak. Pentsatzen saiatu ezer esan aurretik.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Egingo dituzun planak ez dira batere eragin-korak izango; ez zaizu irudimenik falta, baina horrekin ez da nahikoa. Harreman horretatik ihes egiteko egonarrria baino ez duzu behar izango.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Trakets eta burugabeko sentitzen zara eta kontzentrazio faltaren ondorioa baino ez da. Jarriz burua lanean eta gusturago egongo zara ikusiko duzu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Tauroendako esandakoa; halaber arrenkura eta hira askatzen saiatu zaitez bame garbiketaren bidez. Zure izakerako pertsona bat ezagutuko duzu aurki.

EUSKAL FAMILIETAN

IKASI !!

Euskara ikasten ari zaretenontzako egonaldiak euskal familietan.

Informazioa eskuratu nahi baduzu jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura.
Tfnoa: 79 09 00





Arrasateko Batxilergo Institutua

Ikastetxe publikoa
1990-91 ikasturtea

Arrasateko Institutuak 1990-91 ikasturteko aurreinskripzio epea zabaltzen du.

IKASKETA ESKAINTZA

Batxilergo 3 kurtso eta UBI.

Ohizko irakasgaiez gain, aukerakoak honakoak dira:

- 1.BBB: Frantsesa-Ingelesa
- 2.BBB: Erlijioa-Etika
- 3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:
 - A. Zientzia arloa
 - B. Letra arloa
 - C. Zientzi-letra arloa
- U.B.I.:
 - A. Zientzia-teknologia arloa
 - B. Arlo bio-sanitarioa
 - C. Giza arloa
 - D. Linguistika arloa

EZAUGARRI OROKORRAK

- Inguruko batxilergo eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Irakasgai bakoitzeko irakasle lizentziadunak
- Ordutegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3rak arte.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea...

EKIPAMENDUA

- Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritza laborategiak, gimnasioa, bideo gelak, liburutegia.

AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 15etik 30era bitartean. Tfnoa: 79 44 47-37.

✓ **Matrikula dohainik**



Otaui etxea

Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek egina.



FAGOR 

iKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugálde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42

Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 42